

# MAITE QUINTANILLA

Deskribapena: Kike Maite Quintanillarekin Soraluzen elkarrizketan ageri da.

Kike: “Maite, Soraluzen gaude, zuk hemen gazteen inguruan ikerketa bat egin duzu. Nolakoa da gazte hauen harremana euskararekin?”

Maite: “Bueno, nik esango neban oso epaituak sentitzen dirala, hori eurak...”

Kike: “Bai, eh?”

Maite: “Bai, eurak esaten dabe oso gutxi galdetzen jakuela, eta gero ba danetik dago, batzuk autokonsziente bat in dute euskeraren alde, gutxi batzuk, eta beste batzuk ba bueno pixkat hegemonia horrek zer agintzen daben ba horruntz jokutzen dute. Azken finean dira gizartean isla, orduan, gizartian pasatzen dana pues gaztiangan be bai.”

Kike: “Eta euskara hitz egin behar dugu gurea delako eta horrelako diskurtsoak funtzionatzen dute?”

Maite: “Hori esan, esaten dabe, baina benetan balio dute nik uste dut gutxi batzungen heltzen garela diskurtso horrekin. Osea gehixenak dirala ba bueno, ez dakit, askoz gauza praktikogoetatik ikusiko dutela euskeran erabilera hori, ez? Egixa da, gero, autu konszientea einda daukenak eragin haundixa daukela bestiengan. Ze bestiak ez dabe ein auturik, hau da, ez da kontrako autu bat, danak esaten dute “ah, politta da, gustatzen jaku”. Orduan ez da kontrako autu bat, orduan erreza da hor eragitia oso modu praktikan eta erabileratik.”

Kike: “Eta nola eragin behar da?”

Maite: “Ba nik uste dut esperientzia eta bizipen positiboak dirala hor gaku eta ni hor bai konturau nintzan, ba bueno lagun arteak eta aisialdiak pisu handixa daukela adin tarte horretan eta igual hori dala bidia ez? Batez be, aisialdi eskeintzak, gustatzen jakuena eskeintzia euskeraz, hortikan eukitzea bizipen atsegin batzuk beti gogoratuko dutenak. Nik esango nuke ardura badagoala hor, baina batez be baikortasunetik begiratu behar dotsagula, aukeratik eta eureri be bai ikuspegi hori eskeini eta eureri galdetu zer dinuen eta entzun eta entzun!”